

5/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 5koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Oftalmologiako (Betzuloko Patologia) Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK:

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearen ekainaren 7ko 1286/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Oftalmologiako (Betzuloko Patologia) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko abenduaren 1eko EHAA 239 zk. eta 2021eko abenduaren 11ko BOE 296 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021eko abenduaren 31n amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Oftalmologiako (Betzuloko Patologia) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2022ko urtarrilaren 5a

PA

~~Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendari gerentea,~~

María Luz Marqués González



EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESI
OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
GERENTZIA
GERENCIA

ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI

OFTALMOLOGIAKO (BETZULOKO PATOLOGIA) ATALBURU SANITARIOA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Onartuak:

D. Roberto Victor Fernandez Hermida jn.

Baztertuak:

Inor ez